

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Xabier Isasti Etxeberria

*Donostia,
Gipuzkoa
(1928-2013)*

Aurkibidea



Biografia



Donostiako erdigunean jaio zen, Etxaide kalean. Ama Hernanikoa zuen, baserritarra, eta aita donostiarra. Gerra aurretik euskaraz jaso zituen eskolak, besteak beste Muñoaren ikastolan, Kanpandegi kalean; gero, ostera, erdaraz. Maisua gogorra zuten, gainera, zigorrak jarri zalea. Kaian lehengusuak zituen, eta hantxe ibiltzen zen gustura: pilotarekin jolasean, bainatzen... Oporretan Hernanira joaten zen, eta izebari baserriko lanetan laguntzen zion. Gerraosteko gosea eta kontrabandoko trikimailuak gertutik ezagutu zituen. Eskerrak okindegi batean hasi zela lanean, ogia egiten, Grosen. 17 urterekin azaleko gaixotasun larria izan zuen, eta urtebete egin zuen sendatu ezinik. Ondoren soldadutza egitea egokitu zitzaion, Melillan, eta han ere gorriak ikusi zituen, gosearen gosez. Bueltan, Iberdueron hasi zen lanean, eta lan horretan jardun zuen erretiroa hartu arte. Hasieran bizikletan joaten zen batera eta bestera. Egia auzora ezkondu zen, 28 urterekin; Beasaingoa du emaztea.

Zintak

DON-022

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2009-09-29
- **Iraupena:** 93 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia
- **Transkribatzailea(k):** Etxeberria, Eider - Agirre, Eli

Pasarteak

1. Etxaide kale inguruko hotelak eta tabernak

- **Erref:** DON-022/002
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:01:20. **Bukatu:** 00:03:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Hotelak eta pentsioak
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:

<p>Etxaide kalea nolakoa zen. Bi hotel zeuden: La Paz eta Argentino. Bergara kalean Arana eta Idiakez kalean Olasagasti hotelak zeuden. Kanpotarrak ibiltzen ziren, udan batez ere. San Martzial kalean Hirunesketa esaten zioten taberna zegoen, eta Cardona janari denda. Sagardotegi asko zeuden; Bergara eta Arrasate kaleetan ere bazeuden.</p>

2. Etxaide kaleko eskola

- **Erref:** DON-022/003
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:03:40. **Bukatu:** 00:05:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

<p>Etxaide kalean hasi zen eskolan, gero Zaldua biltegia jarri zuten lekuan. Sistiagaren emaztea zen maistretako bat. Hortik Muñtilderearen eskolara joan zen. Euskaraz ikasi zuen bietan. Gerra etorri arte ez zekien erdaraz. Gero, euskara galarazi egin zuten.</p>

Transkripzioa

- Holaxe ibiltzen giñan. ta geo ni lehenbizi eskolan hasi nintzarian'de "calle" etxaiden hasi nitzan. Oain do almazena bat "Zaldua", "Zaldua" zeon, oain ez dakit segitzen dun. Ta han ibili giñan eskolan bajo batian, "parvularios", ta geo hortik pasa nitzan ba zeara, "calle" campanario.
- Muñoan eskolara?
- Muñoana, Muñoan eskolara.
- Eta lehenengo hori, Zalduakua, hor nor zan maixua edo maistra?
- Maistra zan... Arzelus? Ez naiz goatzen. Bi ibili zian han: bat Sistiaga, bueno, Sistiagan emaztia zan. Zeatik Sistiaga zan bandako direktoria ordun ta haren emaztiak'e, ba, klasiak ematen zigun. Baiño ez naiz goatzen ondo zan lehenbizitik "calle" campanarion o zan hor, ez naiz goatzen ondo.
- Eta hor klasiak euskeraz izaten zian?
- Euskeraz, gerra etorri arte nik ez nakin erderaz. Ordun derrigor... begira, komuniyuak harrapatu zien, ordun komuniyuak bi iten zian: bat zazpi o zortzi urtekin ta bestia hamabi-hamahirukin. Eta zazpi urtekin nik euskerazko dotrina dana-dana [...], baiño geo sartu zian gerran eta galarazi in ziguten eta gero ez euskeraz eta ez erderaz, galdu nitun danak.
- Gerran ahaztu?
- Dan-dana han ahaztuta.

3. Muñoaren eskola

- **Erref:** DON-022/004
- **Iraupena:** 0:03:26. **Hasi:** 00:05:22. **Bukatu:** 00:08:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikasgaiak eta ikasmateriala
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak

Laburpena:

<p>Muñoaren eskola kategoriakoa zen. Kapera zuen behean. Jolasteko tokia zuen, eta terraza zuen goian, frontoiarekin. Pilotan ibiltzen ziren han; ordua baino lehen sartzen zen, zortzietan, atezaina esne bila jaisten zenean. Pilotak nola egiten zituen. Mutilak bakarrik ziren gelan. Xabierto liburua erabiltzen zuten. Tinta, lapitza eta arbela.</p>

4. Maisu berriaren zigorrak

- **Erref:** DON-022/006
- **Iraupena:** 0:03:23. **Hasi:** 00:11:11. **Bukatu:** 00:14:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak

Laburpena:

<p>Don Eugenio, gerra osteko maisuaren kontuak. Astigarragako mutil bati

8. Kaiko tiñak, taberna eta labaderoa

- **Erref:** DON-022/014
- **Iraupena:** 0:03:41. **Hasi:** 00:24:08. **Bukatu:** 00:27:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:

Saregileak ere han izaten ziren, kaian. Etxeen arkupeetan tinak zeuden lehen eta karroak sareekin. Antxoak gatzetan jartzen ziren, eta jateko orduan olio botatzen zitzairen. Kaian taberna bakarra zegoen, Biyona, eta aurretik batere ez. Eskailera batzuk zeuden han, baina kendu egin zituzten. Labaderoa ere bazegoen, eta emakumeak kantari egoten ziren. Ura edatera joaten ziren hara.

9. Udan Hernanira eta 17 urterekin okin

- **Erref:** DON-022/017
- **Iraupena:** 0:04:51. **Hasi:** 00:29:27. **Bukatu:** 00:34:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Aita donostiarra zen, eta ama Hernaniko Lastaola baserrikoa. Hara joaten zen udan. Ganadua uztarrarian lotzen, segan... denetik ikasi zuen. Gero okin lanetan hasi zen, 17 urterekin; gose denbora zen. Etxerako egunero kilo bat ogi har zezaketen okinek. Zabaleta kalean zegoen okindegia, Grosen; orain Casa Galizia da. Ormazabal zen nagusia. Errazionamenduko ogia nolakoa zen. Errotak prezintatu egin zituzten; Nafarroara joaten ziren, gauez, Lastolatik.

10. Gose garaia

- **Erref:** DON-022/019
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:34:25. **Bukatu:** 00:36:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gose garaia. Ama negarrez, ez zuelako umeei zer eman. Seboa hartzeko ilaran. Olorik ez zegoen. Babarrunari esnegaina botatzen zioten. Esnea partitzen ere ibili zen izebarekin, etxez etxe, txantxilarekin.

11. Azaleko gaixotasun larria izan zuen

- **Erref:** DON-022/023
- **Iraupena:** 0:04:14. **Hasi:** 00:37:58. **Bukatu:** 00:42:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Osasun-zentroak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak

Laburpena:

<p>Okin zebilela, oso gaizki egon zen soriasis gaixotasunarekin. Radioterapia eman zioten, 72 sesiotan; Antin medikuarekin. Sesio bakoitzak 2.000 pezeta baino gehiago balio zuen. Taxian joaten zen. Munstro bat ematen zuen, begiak ere ezin ireki. Almandoz zen okinen medikua. Tratamendua. Dieta gogorra jarri zioten.</p>

12. Sendabelarrekin ere probatu zuen

- **Erref:** DON-022/024
- **Iraupena:** 0:05:21. **Hasi:** 00:42:12. **Bukatu:** 00:47:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak

Laburpena:

<p>Errenteriako sasimediku batekin ere ibili zen, azaleko gaitza sendatzeko. Huntza jarri behar zuen gorputzean, eta gero ukendu bat eman. Almandoz medikuak hala harrapatu zuen behin, eta tratamendua utzi zuen. Almandozek jarritako dietarekin argaldu egin zen, eta azala erortzen hasi zitzaion: erratza pasatu, eta palarekin jasotzen zuten. Nola sendatu zen. Urtebete egin zuen gaixo.</p>

13. Melillara trenez, soldadutza egitera

- **Erref:** DON-022/027
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 00:48:41. **Bukatu:** 00:51:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

<p>Soldadutza Melillan: trenean joan ziren hara, bagoietan. Malagara joan ziren barkua hartzera, 2.000 bat lagun; lau egun pasatu zituzten bidean. Atzetik beste konboi bat zihoan, eta deskarrilatu egin zen.</p>

14. Bi pezeta egunean, Melillako itsas konpainian

- **Erref:** DON-022/029
- **Iraupena:** 0:02:58. **Hasi:** 00:52:55. **Bukatu:** 00:55:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

<p>Hanka-hutsik ibiltzen ziren normalean Melillan, itsas konpainian; botak, instrukzioa egiteko bakarrik. Bota txarrak ziren. Bi pezeta irabazten zituzten egunean. Nola gastatzen zituzten. Zapatariari gertatu zitzaiona. Berari ez zioten ilea mozten, prozesioetan santuak eramaten zituelako.</p>

15. Botak eskatzeagatik zigortuta

- **Erref:** DON-022/030
- **Iraupena:** 0:03:26. **Hasi:** 00:55:53. **Bukatu:** 00:59:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

<p>Soldadutzan ez zuen zorterik izan, baimenik ez zitzaion tokatu. 19 hilabete egin zituen, 18ren ordez. Botak eskatu zituelako Alhucemas uhartera bidali zuten. Hiru egon ziren han, armarik gabe.</p>

16. Soldadutzatik bueltan, Iberdueron

- **Erref:** DON-022/034
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 01:01:29. **Bukatu:** 01:03:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

<p>Argalduta bueltatu zen Donostiara. Baserrira joan zen, eta hilabetean zortzi kilo irabazi zituen. Iberdueron hasi zen lanean gero.</p>

17. Gaztetan, Hernanira eta Erreteriarira

- **Erref:** DON-022/037
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 01:04:11. **Bukatu:** 01:06:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

<p>Gaztetan kuadrillan ibiltzen ziren mutilak, baina lotsatiak ziren.</p>

Errenteriara eta Hernanira joaten ziren. Kantuzaleak ziren. Osaba erdi bertsolaria zuen.</p>

Transkripzioa

- Ordun gaztetan, ze, hasten ziñan kuadrilla, [...] taberna. Eta, eta lotsatziyak giñan gaiñea danak, lotsatziyak. Bakizu ze pasau zitzaten nei? Soldaduska jun nitzan, iñork ez zun andregaiyik eta ezer ez, ez, ez zun. Eta jun nitzan eta etorri nitzanian esaten ziaten, joe... nik dantzako're ez det sekula izan afiziyoik, eta total, juten giñan, o Errenterira, o Hernanira, ordun oso zea zan...

- Musika izaten zan.

- Bai, musika ta banda. Baiño beti banda bukatzen zunian juten... iristen giñan. Merendatzen genuen, ba bidian, o askotan ba, Astigarragatik / Astiarratik/ barrena ba, zea sagardotegia, ta "al bote" ta hola ta. Geo iristeako, banda bukatua zeon, ta ostea buelta.

- Ta oiñez juten ziñaten ala?

- Bai, bueno oiñez, tranbian Astigarragaiño, baiño oiñez behin baiño gehiotan etorri gea trena galdu ta Hernanitik oiñez, danak kantari. Ordun oain baiño gehiyo abesten zan e?

- Eta, ze abesten zenuten, gogoratzen dezu, orduko abestiyak eta, zeintzuk zian?

- Bai, "Kalian gora, kalia behera" eta, bai. Ni oso, baserrin ta beti ni, abestu ta... Osoba nun, erdi bertsolariya zan, erdi bertsolariya ta...

- Nola zun izena?

- Jose Juan Etxeberria.

- Etxeberria.

- Jose Juan. Baiño garaiya hartakuak e, ez oaingo garayak. Oain gazte oiten dia bertsolarik, lehen, lehen zaharrak zian.

18. Sagardotegietako lehengo giroa

- **Erref:** DON-022/038
- **Iraupena:** 0:02:47. **Hasi:** 01:06:04. **Bukatu:** 01:08:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:

<p>Sagardotegietako giroa. Botean jokatzeko zuten erronda nork ordaindu erabakitzeko. Prezioak. Joaldi bakoitzarekin kupel bat betetzen zuten, eta oso sagardo ezberdinak irteten ziren.</p>

19. Sagardotegiak, elkarteak eta tabernak

- **Erref:** DON-022/040
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 01:09:01. **Bukatu:** 01:10:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:

<p>Sagardotegira kaxuelarekin joaten ziren asko. Aita Aizepe elkartekoa zen, eta bera kaxuela eramatera joaten zitzaion. Tabernetan ardoa edaten zen batez ere.</p>

Transkripzioa

- Eske, sagardoteiya asko, ba, juten zan bere zeakin, bere kazuelakin ta, juten zan sagardotegiya ta. Ni zenbat alditan juna nao /no/ aita difuntua, Haizepekua zan, "sociedad" Haizepe, Haizepe dao /do/ "calle Virgen de..." ez, nola da "El Coro, Virgen del Coro" han, han dao /do/ Haizepe. Eta ni zenbat alditan jun naiz, kaxuelakin, amak prepatzen ziyon kaxuela. Oaingo jendia, ez due iten oaingo emakumiak. Kaxuela prepatu, eta harea, soziedadea, beak afaltzeko, serbilleta batekin bilduta ta. Holako gauzak zian ordun.

- Kejatuko zan.

- E?

- Kejatuko zala.

- Zein?

- Aita.

- Bai, aita. Aitan bizimodua ez det eman nik.

- Eta tabernetan ze, ze edaten zan?

- Ze, ardua.

- Ze eateko ohitura zan, ardua?

- Ardua, oaingo hauek, gauzik ez. Oain nik ez dakit zer dian'de oain gauzak. Kubalibre, bestia dala, bestia. Eta zer dia hoik? Nik ez dakit zenekin iten dituen, ze nahasketak iten dituen.

- Ta sagardua sagardotegiyan bakarrik edaten zan. Tabernetan...

- Bueno, tabernetan'de bai.

20. Irrintzi dantza taldekoa

- **Erref:** DON-022/043
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 01:13:51. **Bukatu:** 01:16:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

<p>Ezpata dantza egiten zuen. Irrintzi taldekoa zen. Herrietara joaten ziren. Zein dantza egiten zituzten. Santa Marian ikasten zuten.</p>

21. Osteguna, neskameen eguna

- **Erref:** DON-022/046
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 01:18:49. **Bukatu:** 01:20:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

<p>Nobiotan zer egiten zuten. Zinemara, paseatzera... Ostegunetan dantzaldia egiten zen Igeldon; neskameen eguna zen.</p>

Transkripzioa

- Eta orduan ze iten zuen bikotiak eta, zinera jun eta hola?
- Bai, eta [...] noizian behin, ahal zanian, diruz exkax ibiltzen zan ta. Ez dao oaingo kontuik eta paseatu ta.
- Bai, gaztelura o paseatu ta...
- Gaztelura juten ziñaten?
- Bai, ta Igeldoa dantzan'e bai, bueno, gutxi, nei ez zitzaten gustatzen ta. Gaiñea denbora haitan osteguna zan "día de las crías" esaten ziyoten, osteguna; eta Igeldon bailia iten zan. Eta hola juten zan jendia ostegunetan.
- Ostegunetan?
- Bai, oain ez da iten Igeldon bailia, oain ez da... Baiño lehen igandetan ta larunbata ta... Baiño ostegunetan espeziala zan, ba, neskamiantzako.
- Eske orduan asko zian hola neskak eta neskame bezela lan egitea etorriyak honea Donostia, probintzikuak.
- Bai, asko, eta gustoa baldin bazuen ere lana. Jakiña, etxe batetik bestea diferentzi haundiya zeon e? Lan gutxiyo lan gehiyo; soldata gutxiyo, soldata gehiyo... Hola.

22. Estropadak

- **Erref:** DON-022/051
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 01:25:06. **Bukatu:** 01:26:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Uretako kirolak

Laburpena:

<p>Estropadak nolakoak ziren lehen. San Pedro ondo ibili zen urte batzuetan. Orio.</p>

Transkripzioa

- Eta estropadak nolakoak izaten zian, jende asko juten zan ikustera?
- Bai, beti izan da jendia. Jakiña, izan zan urtebete iya... Beno, ez zianak izan zian urte batzuk e? Gerra denboan, gerra hasi ta bukatu ta geo, bi o hiru urte pasa zian estropadaik be. Geo hasi zian baiño ordun'de ez zan oaingo indarra. Ordun estropadak hemen gipuzkoan bakarrik iten zian; ez zian juten... Lehenbizikok etorri zianak Pedreña o izango zian, Santandertik eta hola. Eta ordun'de sesiyuk izan zian, baiña ordun Francon denboa zan oaindik
- Eta zeintzuk zian irabazten zutenak edo orduan ondo ibiltzen zianak?
- Ordun?
- Bai, estropadetan.
- San Pedro izan zan urte batzutan, San Pedro. Gaiñea oso patroiya oso zaharra zan... Nola zan hua? Ez naiz goatuko oain. Oso zaharra zan eta kanpoko balizak gaiña bista jetsiya izan behar zun, eta kanpoko baliza noa jun biher zun ikusteko, jartzen zuen ordun baporeko, barkuak zian asko, eta jartzen zuen haren parian kia botatzen zula. Ta harek karril, ez, karril ez...

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-05-12

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com